

Idigoras: «Jauregik ezagutzen du HBren aurkako atentatuen jatorria»

Ziordiakoaren atzean HB baztertzeko kanpaina dagoela salatu du

Jon Idigorasek, Herri Batasunako bozeramaleak atzo esan zuenez, «Jauregik ezagutzen du HBren aurkako atentatuen jatorria». Alderdi abertzaleko ordezkarien iritziz, Ziordiako atentatuaren atzean HBren aurkako kanpaina antolatua dago.

IRUÑEA

Ziordiako atentatuaren atzean Herri Batasunaren aurkako kanpaina antolatua dagoela salatu zuten atzo alderdi honetako ordezkariak. Jon Idigorasek esan zuenez, Ramon Jauregik, PSE-PSOeko idazkari nagusiak, «badu HBren aurkako atentatuen jatorriaren berri».

Flores HBko zinegotzi ohiaren kontrako erasoa Jauregiren adierazpenen ostean gertatu izana susmagarria da HBko ordezkariarentzat. «Benetan kasualitatea da Jauregik eta antzekoek ahoa zabaltzen duten bakoitzean, jarraian Ziordian gertatu dena gertatzea», dio Idigorasek.

Ziordiako zinegotzi ohiaren enpresari su eman zioten ezezaun batzuk herenegun goizaldean. Haragi enpresa bat martxan jartzekoa zen Floren eta suak erabat kiskalita utzi zuen aste honetan lanari ekiteko prest zeukan lantegia. Kalte materialak hogeit hamar milioi pezetakoak (milioi bat libera) izan dira. Atentatua «ETAren aurkako komandoak» hartu du bere gain.

Idigorasek atzo adierazi zuenez, atentatua «abertzaletasuna erakutsi dutenen aurkako mendeku errepresioa da». Erasoriek euren helburua ez dutela lortuko gaineratu zuen, «ez gaituztelako beldurtuko edo politikaz alda eraziko».


HBren kontrako atentatuek inolako zigorrak ez dutela izaten nabarmendu zuen Mahai Nazionalako kideak. Atentatu horiek egiten dituzten artean eta Espainiako polizia, epaile eta exekutiboaren artean nolabaiteko kidesuna dagoela ere salatu zuen Idigorasek.

Patxi Zabaleta foru parlamentariaren iritziz, Ziordiako atentatua «gutziz injustua, jasan ezina eta mertzenarien lana izan da». Hala ere, eraso horien aurrean «irrimo mantenduko gara», ziurtatu zuen Zabaletak. Halaber, HBko kideen arteko elkar-

tasuna goraiatu zuen leitzarrak.

HBk bakearen alde beste inor bezala saiatzen dela azpimarratu zuen Zabaletak. HBk nahi duen bakea, parlamentariaren hitzetan, «benetako, iraunkorra eta justua da, ez mehatxu eta bazterkerian oinarrituriko bakea».

AABB: Amnistiaren aldeko Batzordeak
«GONZALEZEK BAZEKIEN» HBkoekin bat etorri ziren atzo Ziordiako atentatuaren jatorriaz. Esan zuten, «Gonzalezek iragarri zuen Ziordiako atentatua». AABBen irudiko, Jauregi bezalako politikoez horrelako ekintzak bultzatzen dituzte euren adierazpenekin. Gogoratuko denez, Jauregik esan zuen «HB terrorismoari lotuta egoteagatik, politika eta gizarte mailan zigortu behar dela».



20 milioi pezetako kalte eragin Floresen enpresaren aurkako atentatuak. JOXE



Kargu hartzearen ondoren lehenengo bilera egin zuten diputatuek.

Galdos: «HBren partehartzeak Gobernu zailagoa egin dezake»

DONOSTIA

Gipuzkoako Diputazioko gobernu berria «aurrekoak baino zailagoa eta konfliktiboagoa izan daiteke, HBk plenoetan normaltasunez parte hartzen badu», adierazi zuen atzo Eli Galdos, diputatu nagusi berriak.

EAJ eta PSE-PSOeren arteko Gipuzkoako Gobernu osatuko duten hamar diputatuen kargu hartzea presiditu zuen Galdos. Herri Batasunako hamabi hautetsiek Batzar Nagusietan maiztasun handiagoz parte hartuko dutela iragarri duten arren, «akordioak lor daitezke alderdi guztiak herrialde honen alde lan egiteko prest baldin badaude» esan zuen EAJko diputatu nagusi berriak. EAJ-PSOE koalizioak ez du Gipuzkoako Batzar Nagusietan gehiengorik lortzen, berrogeitamaika batzar-kideetatik hogeitabat dituztelako.

Gipuzkoako Diputazioko Gobernu berria «bakarra eta konpaktoa» izango dela esan zuen Eli Galdos, «EAJ eta PSE-PSOEk Euskal Au-

tonomi Elkartearen elkarrekin gobernatu zutenean bezala, alde bakoitza edo besteko inor baztertu gabeko».

Irurtzun-Andoain autobidearen berri, oraindik ez diotela gauzak normaltasunez aztertzeari ekin esan zuen Galdos. «Oso arazo handia da autobidearena baina garrantzi handia duen beste batzuk ez dituzte horregatik ahaztu behar» gaineratu zuen.

Roman Sodupe, Herrilaretako diputatu berriak bestalde, gobernu berriak gai honetan izan beharreko jarrerak «oso definituta» dagoela esan zuen. «Arazo hau teorikoki ekolojiko izan zitekeen, edo teknikoak ETA atzean dagoen eran, arazo politikoa da garbi asko eta bere irudibidea ez dago diputatu nagusiaren edo diputazioaren menpe, demokrazia berari planteatu zaion arazo delako» esan zuen Sodupe, diputatu berri jeltzaleak. Gobernu berriak atzo goizean egin zuten lehenengo kontseilu bileraren aurretik egin ziren adierazpen hauek.

EAJren Asanbladak «etorkizuneko ildoak» aztertuko ditu Getarian

DONOSTIA

Euzko Alderdi Jeltzalaren Asanblada Nagusiak Euskadiren eta EAJ beraren «horizonte berriak» jorratzen dituzten bi ponentzia aztertuko ditu larunbat honetan Getarian.

EAJren Asanbladak aztertuko dituen bi ponentzia horiek lantalde batzuek egin dituzte eta honako izenburuak dituzte: «Euskadiren etorkizunaren horizonte berriak» eta «EAJrentzako horizonte berriak». Bi ponentzia horiekin batera, «Iharduera balantzea» izenburuko beste bat eta alderdi jeltzalearen estatutuen erreformarako proiektu bat landuko ditu EAJren Asanbladak. Erreforma proiektu hori aspaldikra da eta «denbora berriekin bat etortzea» du helburu.

EAJko buruzagi eta koadro, eta hautetsiak Getarian bilduko dira berezia izango den Asanblada Nazionalan. Kongresuen arteko organo gorenaren aurrean, Euzkadi Buru Batzarrak urtarriko kongresuari begira egindako hausnarketa eta kargu berriketa prozesuaren berri emango du.

Joan zen asteburuan, Iruñean, EAJren exekutibak egungo egoera



Xabier Arzalluz.

politikoa aztertu zuen kargu hauteskiekin. Tartean, Jose Antonio Ardanza lehendakaria, Gasteiz eta Madrileko parlamentariak, diputatu nagusiak eta Batzar Nagusietako lehendakariak izan ziren.

Datorren larunbateko Asanblada Nazionalak EAJren herrialdeko exekutibaren berriketa proiektu erabakiko du: exekutiba nazionala berriketa aurretik ala beranduago.

Lerro artean

Ur lohitsuak



Alderdi politikoen barne bizitza —bilakaera, gorabeherak, arazoak, aldaketak...— politikagintzaz arduratzen den kazetaritzaren gai mimatua izaten da, da, sistema parlamentarioak alderdi politikoei ematen dien protagonismoaren eraginpean. Jakina, barne bizitza hori 'interesgarriagoa' —'albistegi-gaiagoa'— bihurtzen da komunikabideentzat, istilutsua den heinean. Antza, istiluak dira komunikabideen eguneroko ogia (ez da kasuala 'istilu larriak...' klitxearekin hasten diren titularren kopurua oso handia izatea). Dena dela, alderdi politikoen barne arazoez ez dute erantzun bera komunikabide guztietan. Protagonistarekiko distantziak, hau da, hurbilago ala urrunago sentitzeak zeresan handia izaten du. Hala ere, dena ez da 'kontra ala alde', 'krisia leundu ala sakondu'. Adibidez, ur nahasi eta

lohitsuetatik 'probetxu informatibo' ateratzea bilatzen duten komunikabideak ere badaude. Istiluak daudenean, urak nahasita datozenean artikulu erakargarriak egitea errazagoa da. Egun hauetan, EEren gorabeherak —EArenekin nahasita— agerian jarri dira komunikabideetan eta interes berezia berenganatu dute. Gipuzkoako Diputazioaren Gobernu Kontseilua osatzeko bezperan, PSE-PSOeko foru diputatuek eta Gipuzkoako buruzagiek paktuaren ondorioak eta talde horren egitasmoa azaltzeko prentsaurrekoa eskaini zuten. Bertan esan zen guztiaz oihartzun handiena izan duena Jesus Egigurenek EEri egindako keinua izan zen. Adibidez, honako titularra aukeratu zuen *Deia* egunkariak: «Egigurenek PSEn sartzeko gonbitea egin die EEko sektore batzuei». Artikulu horren azpian, beste honakoa kokatzen zuen: «Bandresen onartu egin du 'Añamedia' sektoreak EAren bat egin dezakeela». PSE-PSOeren prentsaurrekotik, *El Diario Vas-*

kok Egigurenek aipatutako hitzak nabarmentzen zituen eta ondoko orrialdean berak landutako beste albiste bat jartzen zuen: «Jon Larriagak EEren zatiketa ebitatze ko paktu bat eskatu dio 'Añamediri'». Eskara hau ez da beste egunkarietan azaldu, eta DVK 'bilatu' izanak esanguratsua da egunkariaren beraren jarrera ulertzeko.

Urrunago, Madril, *El Sol* egunkariak hatzamarra sartzeko tokia ikusi du eta Carlos Garaikoetxearekin egindako elkarrizketa bat argitaratu zuen atzo. Eguziaio gehiegi kostatu titular 'deigarri' bat aurkitzea: «EE, EA eta HBren sektoreen arteko birbatuketa bat izango da epe laburrean». Urak bere aldera eramanda, morbo pixka bat emateko balio izan dio, azpititulua erakusten duenez: «Lehendakari ohiak indar berriak gobernatzeko aukera emango diolako konfidantza du».